



Zuazo eskubaloi taldeak asteburu honetan bukatu du ligako lehenengo itzulia porrot berri batekin, Rincon Fertilidad Malaga taldearen aurka (25-28). Zuazotarrak oso ondo atera ziren kantzara, etxeko lehenengo garaipenaren bila eta abantailak eskuratu zituen. Partiduaren zati handi batean nagusiak izan ziren barakaldarrak, baina hainbat kanporatze eta sorte txarraren ondorioz garaipenak ihes egin zuen beste behin Lasesarretik. Gauzak horrela, Zuazok sailkapeneko 10.postuan bukatu du lehenengo itzulia, 9 punturekin.